

DK
Bazkideak


2024




DK Bazkideak

2024. urte amaieran, **126.268** bazkide zituen Donostia Kulturak, aurreko urtean baino **5.095 txartel gehiagorekin**. Bazkide horietatik %60 emakumeak dira, eta %76 Donostiako biztanleak. 45 eta 64 urte artekoen adin-tartea da nagusi, eta 30 eta 44 urte artekoena jarraian. Auzoen arabera, Amarak jarraitzen du izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien duen barrutia (%19); Amararen atzetik daude Gros (%13), Antiguoa-Ibaeta (%11), Intxaurrondo (%11) eta Altza (%10).

Hau da Gipuzkoako klub handiena eta, bazkide-txartelaren bitartez, Donostia Kulturak herritar guztiei kulturaz gozatzeko aukera emateko duen nahia bideratzen da. Horren adierazgarri onenak dira udal liburutegien sareak duen erabilera handia (liburuak maileguan hartzeko erabiltzailea identifikatzeko balio du, besteak beste) eta programazio artistikoaren kasuan zaleen leialtasuna lortzeko ekintzak, hala nola zozketak, prezio murriztuak eta bestelako promozioak. Izan ere, **San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokia, Principal Antzokia, Imanol Larzabal aretoa, Intxaurrondok, Larratzok** eta **Gazteszenak** DK txartelaren bitartez kudeatzen dituzte publiko ezberdinengana hurbiltzeko haien estrategiak.





Bazkideen online atalean daude ikusgai abantaila guztiak. 2023an, dagoeneko **49.443 lagun zeuden erregistratuta**. Haiek dira erakundearen ekimenak ondoen ezagutzen eta bultzatzen dituztenak.

Izan ere, ikuskizunez gozatzeko abantailak izateaz gain, bazkideek gutxienez % 10eko deskontua dute ikastaroetan, argitalpenetan eta Donostia Kulturak sortzen dituen zerbitzu eta produktu guztietan. Txartelarekin, deskontu horretaz balia daitezke bazkideak **Basque Culinary Center & LABe jatetxean Tabakaleran, Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay** jaialdian, **Udako Ikastaroetan**, etab.



Bestalde, **San Telmo Museoak** are abantaila gehiago eskaintzen ditu **STM&DK** txartel mistoarekin, hala nola museora doan sartzeko aukera eskaintzen du, inaugurazioetarako gonbidapenak eman, zozketak antolatu eta deskontuak aplikatu. Horiexek dira Donostiako museoari laguntzeko arrazoietako batzuk, orain inoiz baino gehiago.



Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen gaur egungo mapa:

DK Bazkideak
116.745

Webgunean erregistratutako
erabiltzaileak: 32.275

Buletinak

Agendak

Hileko agenda	37.735
Asteko agenda (bazkideak)	16.687
Asteko agenda (ez bazkideak)	2.495

Gaikako buletinak


Zinema	13.651
Antzerkia	13.265
Dantza	7.730
Musika	14.242
Artea / Erakusketak	8.297
Literatura	8.016
Festak	7.920
Haurrak	4.649

Izena emandakoak




Donostia Kultura Bazkideak: donostiarrak


- Donostiarrak: **95.908 (%75,96)**
- Ez donostiarrak **30.360 (%24,04)**



Bazkide donostiarrak auzoka



Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



75.551
EMAKUMEAK




50.717
GIZONAK



Bazkideen garapena 2015-2024

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan